

4/2021 Jarraibidea, abenduaren 21ekoa, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiarena, honako hau eguneratzekoa:
3/2021 Jarraibidea, martxoaren 31koa, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez ezartzen baitira zenbait irizpide adierazteko nola aplikatu 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa, eta hura garatzeko xedapenak, kreditu-entitateek beren langileei maileguak ematetik eratorritako gauzako lan-errendimenduei dagokienez, eta akatsak zuzentzekoa.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta hura garatzeko xedapenak aplikatzeko hainbat irizpide ezartzen dituen Ogasun Zuzendaritza Nagusiaren martxoaren 31ko Jarraibidearen 3.3.1 atala ("Gauzako errentak: abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 60. artikulua 2. idatz-zatiaren azken paragrafoak), irizpide bat jasota dauka merkatuan ohikoak diren baldintzetan baino onuragarriagoetan eskuratzen diren maileguen ziozko gauzako lan-etekinak balioesteari buruz, bereziki, kreditu-erakundeek euren langileei emandako maileguez denaz bezainbatean.

Horrela, martxoaren 31ko 3/2021 Jarraibidearen 3.3.1 atalean jasota dagoenez, gauzako lanaren etekina maileguak ematearen zioz sortzen denean, etekin horren balioespena zehazteko, ordaindutako interesaren eta aldi horretan indarrean dagoen diruaren legezko interesaren arteko aldea kalkulatu behar da.

Nolanahi ere den, aurrekoa gorabehera, kreditu-erakundeek euren langileei maileguak ematearen zioz gauzatan ordaindutako ordainsarien balioespena honela kalkulatu behar da:

- Diruaren legezko interesa merkatukoa baino txikiagoa bada, gauzako ordainsaria ordaindutako interesaren eta legezko interesaren arteko aldearen arabera balioetsiko da.
- Diruaren legezko interesa merkatukoa baino handiagoa bada, ordainsaria ordaindutako interesaren eta merkatuko interesaren arteko aldearen arabera balioetsiko da.

2021eko ekitaldian, mota horretako eragiketen balioespenak berrikusi dira, hainbat finantza-erakundek lotura-maila handiko bezeroei galdatzen dizkieten prezioak kontuan hartuta; beraz, beharrezkoa da martxoaren 31ko 3/2021 Jarraibidean jasotako merkatuko interesari dagozkien zenbatekoak eguneratzea. Eguneratze hori 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen diren etekinak kalkulatzeko aplikatuko da.

Bestalde, martxoaren 31ko 3/2021 Jarraibideak honakoa dioen irizpidea dauka: "3.6.1. Lanaren etekin hobariak: abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 23. artikulua". Bertan, transkripzio-akats bat antzeman da, eta jarraibide honetan zuzendu egingo da.

Aurrekoa dela eta, Bizkaiko Foru Ogasuneko Ogasun Zuzendaritza Nagusiak erabaki du finantza-erakundeek euren langileei maileguak ematearen zioz gauzatan ordaindutako ordainsarien balioespenari buruzko irizpidea eguneratzea, eta, bestetik, martxoaren 31ko 3/2021 Jarraibidearen 3.6.1 atalean, lanaren etekin hobariei buruzkoan, antzemandako transkripzio-akatsa zuzentzea.

Azaldutako guztia aintzat harturik,

HONAKO HAU EBAZTEN DUT:



1. Gauzazko errentak: abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 60. artikularen 2. idatz-zatiaren azken paragrafoak.

2016ko apirilaren 30era arte sortutako etekinak.

Gauzazko lanaren etekina maileguak ematek sortzen denean, etekin horren balioespena kalkulatzeko, ordaindutako interesaren eta aldi horretan indarrean dagoen diruaren legezko interesaren arteko aldea kalkulatu behar da.

Hala eta guztiz ere, kreditu-entitateek euren langileei maileguak ematearen zioz ordaindutako gauzazko ordainsarien balioa honela kalkulatu da:

Diruaren legezko interesa merkatukoa baino txikiagoa bada, gauzazko ordainsaria ordaindutako interesaren eta legezko interesaren arteko aldearen arabera balioetsiko da. Diruaren legezko interesa merkatukoa baino handiagoa bada, aldiz, ordainsaria ordaindutako interesaren eta merkatuko interesaren arteko aldearen arabera balioetsiko da.

Ondorio horietarako, kreditu-erakundeek baldintza abantailatsu eta bereziak dituzten kolektiboei eskatzen dizkieten interes-tasak eta langileei ematen dizkieten maileguen berankortasunik eza kontuan harturik, ondokoa hartuko da merkatuko interestzat:

a) Etxebizitza erosteko maileguak direnean, hipoteka-bermea duten ala ez alde batera utzita, ondoko bietatik txikiena:

a.1) Sektore pribatu egoiliarri, hiru urteko edo gehiagoko epean, etxebizitza librea erosteko helburuz emandako hipoteka-bermedun maileguen urteko batez besteko interes-tasa haztatua, Espainiako Bankuaren kreditu-erakunde eta ordainketa-zerbitzuen hornitzaileentzako ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularraren hamaseigarren arauaren 4. atalean eta 9. eranskinean, banku-zerbitzuen gardentasunari eta maileguak emateko erantzukizunari buruzkoan, xedatzen denaren arabera kalkulatu.

a.2) EURIBOR indizeari dagokion hamabi hilabeteko urteko batez besteko interes-tasa gehi 0,3 puntu (EURIBOR+0,3).

b) Kontsumorako maileguak direnean, ondoko bietatik txikiena:

b.1) Sektore pribatu egoiliarri, urtebeteko eta hiru urterik beherako epean, emandako mailegu pertsonalen urteko batez besteko interes-tasa haztatua (polizan edo finantza-efektuetan), Espainiako Bankuaren kreditu-erakunde eta ordainketa-zerbitzuen hornitzaileentzako ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularraren hamaseigarren arauaren 4. atalean eta 9. eranskinean, banku-zerbitzuen gardentasunari eta maileguak emateko erantzukizunari buruzkoan, xedatzen denaren arabera kalkulatu.

b.2) EURIBOR indizeari dagokion hamabi hilabeteko urteko batez besteko interes-tasa gehi 1,25 puntu (EURIBOR+1,25).

Batera zein bestera, merkatuko interes-tasatzat hartuko da ordainsariari dagokion ekitaldiaren aurreko urteko batez besteko interes-tasa.



2016ko maiatzaren 1etik aurrera sortutako etekinak.

Gauzazko lanaren etekina maileguak ematearen zioz sortzen denean, etekin horren balioespena kalkulatzeko, ordaindutako interesaren eta aldi horretan indarrean egon den diruaren legezko interesaren arteko aldea kalkulatu behar da.

Hala eta guztiz ere, kreditu-entitateek euren langileei maileguak ematearen zioz ordaindutako gauzazko ordainsarien balioa honela kalkulatu da:

Diruaren legezko interesa merkatukoa baino txikiagoa bada, gauzazko ordainsaria ordaindutako interesaren eta legezko interesaren arteko aldearen arabera balioetsiko da. Diruaren legezko interesa merkatukoa baino handiagoa bada, aldiz, ordainsaria ordaindutako interesaren eta merkatuko interesaren arteko aldearen arabera balioetsiko da.

Ondorio horietarako, kreditu-erakundeek baldintza abantailatsu eta bereziak dituzten kolektiboei eskatzen dizkieten interes-tasak eta langileei ematen dizkieten maileguen berankortasunik eza kontuan harturik, ondokoa hartuko da merkatuko intereszat:

a) Etxebizitza erosteko maileguak direnean, hipoteka-bermea duten ala ez alde batera utzita, ondoko bietatik txikiena:

a.1) Sektore pribatu egoiliarri, hiru urteko edo gehiagoko epean, etxebizitza librea erosteko helburuz emandako hipoteka-bermedun maileguen urteko batez besteko interes-tasa haztatua, Espainiako Bankuaren kreditu-erakunde eta ordainketa-zerbitzuen hornitzaileentzako ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularraren hamaseigarren arauaren 4. atalean eta 9. eranskinean, banku-zerbitzuen gardentasunari eta maileguak emateko erantzukizunari buruzkoan, xedatzen denaren arabera kalkulatu.

a.2) EURIBOR indizeari dagokion hamabi hilabeteko urteko batez besteko interes-tasa gehi 0,5 puntu (EURIBOR+0,5).

b) Kontsumorako maileguak direnean, ondoko bietatik txikiena:

b.1) Sektore pribatu egoiliarri, urtebeteko eta hiru urterik beherako epean, emandako mailegu pertsonalen urteko batez besteko interes-tasa haztatua (polizan edo finantza-efektuetan), Espainiako Bankuaren kreditu-erakunde eta ordainketa-zerbitzuen hornitzaileentzako ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularraren hamaseigarren arauaren 4. atalean eta 9. eranskinean, banku-zerbitzuen gardentasunari eta maileguak emateko erantzukizunari buruzkoan, xedatzen denaren arabera kalkulatu.

b.2) EURIBOR indizeari dagokion hamabi hilabeteko urteko batez besteko interes-tasa gehi 1,40 puntu (EURIBOR+1,40).

Batera zein bestera, merkatuko interes-tasatzat hartuko da ordainsariari dagokion ekitaldiaren aurreko urteko batez besteko interes-tasa.

2022ko maiatzaren 1etik aurrera sortutako etekinak.



Gauzazko lanaren etekina maileguak ematearen zioz sortzen denean, etekin horren balioespena kalkulatzeko, ordaindutako interesaren eta aldi horretan indarrean egon den diruaren legezko interesaren arteko aldea kalkulatu behar da.

Hala eta guztiz ere, kreditu-entitateek euren langileei maileguak ematearen zioz ordaindutako gauzazko ordainsarien balioa honela kalkulatu da:

Diruaren legezko interesa merkatukoa baino txikiagoa bada, gauzazko ordainsaria ordaindutako interesaren eta legezko interesaren arteko aldearen arabera balioetsiko da. Diruaren legezko interesa merkatukoa baino handiagoa bada, aldiz, ordainsaria ordaindutako interesaren eta merkatuko interesaren arteko aldearen arabera balioetsiko da.

Ondorio horietarako, kreditu-erakundeek baldintza abantailatsu eta bereziak dituzten kolektiboek eskatzen dizkieten interes-tasak eta langileei ematen dizkieten maileguen berankortasunik eza kontuan harturik, ondokoa hartuko da merkatuko interestzat:

a) Etxebizitza erosteko maileguak direnean, hipoteka-bermea duten ala ez alde batera utzita, EURIBOR indizeari dagokion hamabi hilabeteko urteko batez besteko interes-tasa gehi 0,5 puntu (EURIBOR+0,5), lehen hamabi hilabeteetan izan ezik; esandako aldi horretan, EURIBOR+0,6 aplikatuko da.

b) Kontsumorako maileguak direnean, EURIBOR indizeari dagokion hamabi hilabeteko urteko batez besteko interes-tasa gehi 2,5 puntu (EURIBOR+2,5).

Batera zein bestera, merkatuko interes-tasatzat hartuko da ordainsariari dagokion ekitaldiaren aurreko urteko batez besteko interes-tasa.

2. Hobariak

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2012 Foru Araua eta hura garatzeko xedapenak aplikatzeko zenbait irizpide ezartzen dituen Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren martxoaren 31ko 3/2021 Jarraibidearen 3.6 atala honela idatzita geratuko da:

"3.6. Hobariak.

3.6.1. Lanaren etekinaren hobariak: abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 23. artikulua.

Lanaren etekin garbietarako ezarritako hobari orokorraren gehikuntza zergaldiko zeinahi egunetan aplikatu daitezke, horretarako berariaz ezarritako inguruabarrak aldi berean gertatzen direnean.

Zergaldiaren barruan, desgaitasunaren maila aldatzen bada, ekitaldian zehar izan diren inguruabarren arabera aplikatu daitezkeen gehikuntza-ehunekoetatik handiena aplikatuko da.

Baterako tributazioan, lan-etekinak dituen zergadun bat baino gehiago dagoenean eta, aldi berean, hobari orokorra handitzeko eskubidea duenean (edo aipatutako gehikuntza jasotzeko eskubidea baten batek bakarrik



duenean), desgaitasun-maila handiena duenari dagokion hobariaren gehikuntza aplikatuko da.

Abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 23.3 artikuluan, "langile aktibo desgaituak" aipatzen dira; aipaturiko langileak hauexek dira: enplegatzailerak edo enpresaburua deritzon pertsona fisiko edo juridiko baten erakundearen barruan eta haren zuzendaritzapean, besteren kontura eta ordainsari baten trukean zerbitzuak egiten dituzten zergadunak.

Gehikuntza horren helburua dugu pertsona desgaituei laneko joan-etorriak egiteko eta laneko jardueran aritzeko pairatzen dituzten arazo-eragozpenak konpentsatzea.

Beraz, ondokoek ez daukate hobariaren gehikuntza aplikatzeko eskubiderik: langabezia-prestazioa jasotzen dutenek, ez baitute inolako lan eraginkorrik egiten, ez eta aurre-erretiroan dauden zergadunek ere, nahiz eta euren egoera Gizarte Segurantzaren alta ematearekin berdinetara egon, GSrekin sinatutako hitzarmen berezia dela bide.

Gainera, hobariaren gehikuntza ezin zaie aplikatu lanaren etekin pasiboak (pentsioa) besterik jasotzen ez dituzten zergadunei, nahiz eta, beste alde batetik, euren konturako jarduera ekonomikoa garatu. Horrelako kasuetan, zergadunek jarduera ekonomikoa baten ziozko etekinak jasotzen dituzte eta etekin horiek halakotzat jaso behar dira PFEZen zerga-oinarrian; ez besteren konturako lan aktiboari atxikitako etekinik (azkenei aplikatzen zaie hobaria). Beraz, abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera ez dira langile aktiboak. Hala, desgaitasunagatik kobratzen duten pensioa ez dute langile aktibo moduan jasotzen, ez eta besteren kontura egindako zerbitzu baten ordainsari gisa ere".

Bilbon, 2021ko abenduaren 27a

OGASUNEKO ZUZENDARI NAGUSIA
Sin.: Iñaki Alonso Arce.